



LINAZASORO, Karlos
Literatura Hiztegi Tekniko Laburra

Donostia: Elkar Argitaletxea, 2015
 308 or. ; 21 cm
 ISBN: 978-84-9027-354-8

Karlos Linazasoro (Tolosa, 1962) filologoa da ikasketaz eta bibliotekaria lanbidez, baina batez ere idazle moduan da ezaguna euskal kulturaren eremuan. Hainbat genero eta literatura agerpenetan aritua izan da: poesian, haur literaturan, entseguan, narrazioan, eleberrian, aforismoetan... Baina sekula ez da lan metaliterario bete-beteko batean saiatu *Literatura hiztegi tekniko laburra* izeneko lana argitaratu arte.

Lan honen izenburuari erreparatuz gero, ez dira gutxi izango benetako hiztegi serio baten aurrean gaudela pentsatzen dutenak. *De facto*, izenburua engainagarria suerta dakioke baten bati, liburuaren edukia ez datorrelako guztiz bat izenburu aseptiko horrekin. Hiztegia izan bada, zenbait kontzeptu eta termino literarioen definizioa edo azalpena dakarelako, baina batez ere miszelania edo testu antologia baten aurrean gaude, egilearen beraren testuen antologia bat, alegia. Hala ere, egileak berak sarreran adierazten duenez, hiztegiaren egiturari eta nolabaiteko “erabilerari” eusten die.

Egilearen izaera polifazetikoarentzat hiztegi honek aukera ezin hobea eskaintzen du hainbat literatura-ariketetan aritzeko eta hainbat egoera literarioekin irakurlea limurtzeko, haren gaitasun literarioarekin euskal literatura aberasteko, euskal literaturaren mugak zabaltzeko eta hiztegi literario batek eskaini ditzakeen adibideak –literarioki ere– areagotzeko. Horretan hitzaurretik bertatik saiatzen denik ezin uka.

Izenburua bera Karlos Linazasorok asmatutako jolasa dugu. Ez da hiztegi “tekniko” bat, berez, literaturak ez baitu definizio teknikorik behar, teknikotasunetik eta zehaztasunetik ihes egiten baitu literatura, ambiguitasunarekin jokoan eta jolasean aritzen baita. Agian termino literarioak dira zehaztasunez definitzen ahal direnak (hori dagoeneko zenbait argitalpenetan, euskaraz baita, egin izan da), baina literaturak adiera zehaztetatik ihes egiten du eta halaxe egiten du lan honen egileak ere.

Arestian aipatutako literatura hiztegien harian, euskaraz Euskaltzaindiak berea atera zuen: *Literatura Terminoen Hiztegia* (LTH), sarean dagoena. Karlos Linazasorok, hasierako “aurkezpen oharrean” esaten duenez, bere hiztegia idazten ari zelarik, 2008. urte inguruan, (berari “ezer adierazi gabe”) Euskaltzaindiak hiztegi hura kaleratu zuen. Horrek harri eta zur utzi zuen egilea eta *zerbaitetan lehena* izatearen poza kendu omen zion. Izan ere, urte artan, artean euskarazko literaturak ez zeukan literatura terminoen hiztegirik euskaraz. Orduan Karlos Linazasorok bere hiztegiarekin jarraitzeko asmoa hartu omen zuen (nahiz eta Euskaltzaindiak berea argitaratu berria izan), baina beste ikuspegi batekin: ez Euskaltzaindiaren hiztegiari itzala egiteko, ezpada osatzeko, karga didaktiko eta estilistiko handiagorekin, Karlos Linazasororen estilo errepika ezinarekin, alegia. Horrela, irakurleak Karlosek berak asmatutako adibide eta testuekin eginen du topo, eta egileak hiztegiaren kontzeptuarekin jolasa egiten duela konturatuko da.

Karlos Linazasorok nolabaiteko dialogo bati eusten dio Euskaltzaindiarekin termino literarioen definizioetan barrena. Esaterako, “Komedia” terminoa definitzerakoan LTH-ak ematen duena aipatu, bai, egiten du, baina terminoa irudikatze aldera “Zen ipuina” delako komedia eskaintzen du, irakurlea “irriz edo barrez lehertzeko” ilusioarekin, hiztegi serio batek egin

ezin dezakeena. “Ipuin” kontzeptua dela-eta, definizio eman ordez, aurrena LTH-ra jotzea gomendatzen du definiziorik eman gabe, eta ondorenean gogora ekartzen du Euskaltzaindiakoek definizioak ematen bai, baina ipuinak sortzen ez dakitela eta hori bere zeregina dela, “teoria praktikan jartzea baino ikaskizun hoberik ez dagoela pentsatzen” baitu. “Literatura fantastikoa” terminoarekin ere beste horrenbeste egiten du, bost narrazio fantastiko ttiki-ttiki eskainiz.

Liburu osoan zehar Raymond Queneau-ren *Estilo ariketak* (jatorrizko bertsoia 1947an argitaratua *Exercices de style* izenburuarekin) liburuaren oihartzuna nabari da, nahiz eta Linazasororen emaitza oso bestelakoa den berez. *De facto* Queneau-en liburua (euskarazko bertsoia, 2007koa) agertzen da bukaerako biografian. Estilo-ariketa hauen adibide bat emate aldera, eta aforismoekin duen sormena irudikatze aldera, hor dugu “Autobiografia” delako terminoa definitzerakoan 131 ohar autobiografiko ematearen ariketa. Ohar autobiografiko horietan egileak esaldi guzti-guztien hasieran “Batzuetan” hitza agertzen du: ez da marka makala. Horrek zer pentsatua ematen dio irakurleari; esaterako, hasiera berberarekin hainbeste mezu literario transmititzen ahal direla euskaraz. Geroago “Musurismo” termino neologista azaltzeko ere musuaren inguruko 111 aforismo asmatuak ageri dira: beste estilo ariketa Linazasorotarra, inondik ere. “Poetika” terminoa azaltzean, bestalde, poetikaren inguruko 119 “albo ohar” aipatzen ditu, laburrak bezain iradokitzaileak eta benetan egilearen poetika zer-nolakoa den ulertzea eramaten ahal gaituztenak, nola eta izan zitekeen modurik Linazasorotarrean: aforismo txinpartatsu horien bidez.

Kontzeptu eta termino askoren adibidetegian egilea asmotsua den arren, agian goia mikroipuinetan jotzen du. Haiei eskainitako 30 orrialdetan, adibidez, 96 mikroipuin tartekatzin ditu. Estilo ariketak dira batzuk. Fantasia Cortazarra antzematen da bestetsuetan. Minimalismo Monterrosoarra ageri da ez gutxitan. Disparatea, *non-sense*, umore beltza eta bestelako joko literario eskala txikian ugariak dira horrelako ipuinetan, Linazasororen estiloa zedarrituz betiere. Baliaridike umore beltza eta nolabaiteko zinismo herabetsua honen ondorio direla: egileak gizakiarekiko duen etsipenean edota konfiantzarik ezan.

Disparate edo zentzugabekeriak umorea aipatu berri dugu eta ezin ahaztu joera hori mikroipuinetan ez ezik, bestelako literatura-agerpen eta generotan ere sumatzen dela; hala nola, bere antzerki lanean, bere haur literaturaren adibidean (“Amona Bittoriren piercing-a” izenekoan), edota bukaera aldean agertzen da *Nouvelle*-ren definizio eta adibidean. Tonu, ustez, baldar edo axolagabe horren atzean askotan metaliteratura saiatzen da txertatzen egilea. Badira, esate baterako, mikroipuinaren artean batzuk helburu metaliterario agerit dutenak: “Modus operandi”, “Lan postumoak”, “Minifikzioa”, “Haikua”, “Ipuin gotikoa”...

Arestian esan bezala, nabarmentzekoa da liburu honetan badirela zenbait termino hedadura bereziki handia hartzen dutenak. Hedadurarik handiena “Nouvelle” delako terminoak dauka, definizio zehatz eta laburraren ostean 70 orrialdeko adibide mardula eskaintzen baitio irakurleari. Baina *Nouvelle* honen ekarpen literarioa ez datza tramaren eraketan edo istorioaren erakarmenean. Alderantziz: *Non sense* edo zentzugabekeriak betetako istorio honetan protagonista –Karl Linazasoro egilearen *alter ego* barregarri edo negargarri bat, literato frakasatu eta atormentatu batek izan ditzakeen tik aunitzez jantzita– zapata-lotzaila da lanbidez eta arrazoi tragiko batzuegatik zapata-lotzaila izatera nola ailegatu den azalzen digu protagonista ere baden narratzaileak. Baina istorio zentzugabe honetan, bigarren partearen deizak istorioaren zatian, Atanasio izeneko ezagun batekin egiten du topo protagonistak. Biak daude mundu honetan naufragio eta, oso garbi ez dauden arrazoiengatik, Kanposantu batean bukatzen dute, labirinto ere baden kanposantu batean, nondik ateratzerik ez baitute. Egoera hartan bien arteko elkarbizitza paranoikoa bilakatzen da, bien arteko hau-tuak eta elkarrizketa-gaiek zentzugabekeria goia jotzen dutelarik, betiere hitz jario eta diskurtsoen azpian benetako komunikazioa lortzeko oztopoa antzemanen. Atanasio (gero Ata eta gero Oto izenarekin izendatuko du Karl protagonistak eta narratzaileak) drogazalea izan omen zen kanposantura joan orduko eta hileriko egoera surrealista horretan Karl protagonistaren naufragio-lagun bilakatuko da, bien arteko elkarrizketa patetikoetan umore beltz ugari eta demasako zinismoa aurkitzen dugularik. Berrito ere gizakiaren, poeten eta funtzionario

mentalitatea dutenen lepora trufa eta sarkasmoa egiteko probesten du Karlos Lizanasoro egi-leak, euskal literatura euskaldun eta unibertsalari zenbait keinu eta erreferentzia burlatu egiten dizkien bitartean. Azkenik, Samuel Becket-en eragin garbia azpimarratu behar da atal honetan, *Godoten esperoan* antzerki-lanarena hain zuzen. *Nouvelle* hau tragikomedia ere bada, egoera absurdo batean bi protagonistek elkarriketa zoro eta zentzugabeko bati eusten baitiote, euren arteko aldatzea behin eta berriz aldatuz, eta kulturaren elementuekin jolas eginez. Danteren *Jainko antzerkia* lanaren oihartzuna ere antzematen da: gutxienez “ifernu” atalarena, non protagonista espero ez zuen leku batera eramana izan baita eta handik bere borondatez soilik ezin da irten.

Bere antzerki lanari, bestalde, 43 orrialde eskaintzen dizkio eta jarraian erreparatuko diogu horri baina, lanen luzerari erreparatzen ari garenez, buka dezagun kontu hau esanez hirugarren tarterik handiena mikroipaina kontzeptuak hartzen duela (30 orrialderekin).

Antzerkiari eskainitako tartean, “Munduaren biltzarra” deiturikoan, bost poeta eta Pinter andrearen artean egindako poesia kongresu xeble batean izandako gogoeta eta elkarriketa zoroak agertzen zaizkigu. Mundu mailako topagune berezia omen da eta nazioarteko poetok euren artean ingelesez eta esperantoz mintzatzen dira. Guk balizko “kongresu” hori euskaraz jarraitzeko aukera dugu, nahiz eta noizean behin, partaideek zenbait interjekzio eta esaldi “adierazgarri” gaztelaniaz (noiz edo noiz ingelesez baita) botako dituzten, sarri askotan hizkera poetikoari kontrapuntua ezarriz: “Tira, mekaben laputa...” (24. orr.), “Dying for a pee” (32. orr.), “Hay que joderse!” (34. orr.), “Zeren gu, lagun, somos la alegría de la huerta, joie de vivre!” (41. orr.), gutxi batzuk aipatzearen. Joera hori, *Nouvelle* delakoaren adibidean ere badago, jakina, baina antzerki lan honetan askoz trinkoagoa da, poeten izara harropuztu, kontraesankor eta eklektikoaz barre eginez bezala. Poetak honako hauek dira: Otis, SRL, Doppelmayr, Aseki eta Wagner. Ez dago garbi guztiak errealtatean poetak diren ala ez, existitu izan diren ala ez. Otis izeneko poeta ezaguna ei da (Otis O’Solomon, Oklahomako poeta-talde bateko kide), baina antzerki lan honetan Europatik datorrela dio eta hori ez dator bat guk topatu dugun informazioarekin. Wagner abizena erraza da erlazioatzea konposatzaile germaniar ezagunarekin, baina ez dugu aurkitu nazioarteko poeta ezagunik abizen horrekin. Eta gainontzekoekin beste horrenbeste. Edozein kasutan dibismoak jotako poeta xeble batzuen arteko elkarriketa metaliterario ia-ia absurdo baten aurrean gaudela antzematen da eta xebletasun horretaz narratzailea bera ere kutsatzen dela ematen du. Adibidez, partaideetako batek komunetik itzuli dela aipatzean honako hau dio: “Ez dago esaterik, baina baliteke joan zenetik etorri den arte hiruzpalau aste igaro izatea, bost ez badira. [...] Pinter andreak ogi-apurak eman dizkio txori kaiolatuari, eta SRL-zen gurditxoari bultzadaxo bat eman dio ondotik pasatu zaionean. Oldarrak ezustean harrapatu du SRL eta, oreka galdurik, erori eta mahaiaren hankaren kontra ireki du kaskezurra. [...] Denak poztu dira ikuskizunarekin” (38. orr.).

Baina Linazasorok antzerkiari egiten dion ekarpena ez da mugatzen “Antzerki” delako terminoari. “Entremes” terminoa ere probesten du antzerki-pieza txiki bat eskaintzeko: gobernuak jaiotza-tasa bultzatzeko iragarki baten inguruan senar-emazte batzuek gaizkiulertu bat izan dute eta euren etxera umei argazkiak egitera joan zaien pertsona bat gobernuko “agentetzat” hartu dute zertarako eta umea egiteko arduraduna bailitzan. Ikus-entzulearentzat (eta irakurlearentzat) barregarria izan nahi duen istorio xeblea dugu hauxe, surrealis- moaren mugatik gertu.

Liburu hau irakurtzean eta Karlos Linazasororen ibilbidea pixka bat ezagututa, ondoriozta dezakegu ahalegin berezia egin duela egi-leak antzerki lan batzuen lorrataz uzteko edota bere erreperitorioan antzerkia nahi izan duela bultzatu eta bereziki jorratu. Agian hori zen falta zitzaion koska edo hori zen euskal literaturari egin nahi zion ekarpen propioa.

Arestian aipatutako atal handi horien artean badira asko eta asko oso leku gutxi hartzen dutenak baina irakurlearen ibilbide literarioa entretenitu eta aberasten dutenak. Esate baterako “Prosazko poema” delako termino literarioaren atalean hamar testu eskaintzen ditu Linazasorok definizioari ohore egin nahian, baina hasieratik argi utziz prosa poetikoa definitzea ez dela kontu erraza: “Nola esaten da poetikoki?: toma ya! Guk prosa batzuk idatzi

ditugu, baina beldur gara kontzeptu horiek guztiak beteko ote ditunetz” (282. orrialdea). Eta jarraian, irakurlearen konplizitatea beste behin bilatu nahian halaxe dio: “Ea zuk zer diozun, irakurle” (*ibidem*). Hamar testuetatik lautan gutxienez (“Arrosa, noren arrosa”; “Oi, orratz”; “Neska, neskato”; “Ohearen iruntzian”), prosa poetiko hori lortze aldera erotismora makurtzen da egoera sentsualak agertuz eta emakumearen gorputzaren aitzakian zenbait deskripzio eta kontakizun laburrekin.

Literatura termino ezagun, ospetsu eta oparoen artean, lehenago esan bezala, badira zenbait termino horren ezagunak ez direnak. Adibidez, “Epizedio”. Linazasorok hitz-elkarketa batekin definitzen du: “Hil-kanta”. Ondorenean egileak berak, “zoritzarrez”, zenbaitetan idatzi behar izan dituen batzuk ekartzen ditu, hildako lagun eta senidekoei eskainiaz. Beraietan beste Linazasoro bat dakusagula ematen du, lirikoa, maitasunaren gorazarregilea... Egileak berak inoiz aitortu izan du bera ere harritzen dela antzematean zein idazkera desberdina dabilen genero batzuetan eta besteetan.

Arestian aipatu bezala, gaztelaniazko eduki testuala ageri da ez gutxitan hainbat kontzepturen adibideetan. Badira, liburuaren bukaera aldera, bi termino zeintzuetan egileak ematen duen adibide bakarra gaztelaniazkoa baita. Horretarako egileak ematen duen justifikazio bat hauxe da: “Erdaldunek Mitxelenari ongi (eta soilik) ikasi zioten legez, erdera ere gurea da” (290. orrialdea). “Redondilla” terminoaz ari gara, egilearen ustez euskaraz erabiltzen ez den estrofa izaki. “Cumpleaños” izeneko redondilla adibidea etorriko da gero. Jarraian “Seguidilla” terminoa ageri da eta egileak, berriz ere, definizioaren ostean “La multa” izeneko gaztelaniazko “seguidilla” baten adibide asmatua ematen du, Guardia Zibilak berari jarritako (fikziozko) isun baten inguruko gorabeherak kontatuaz, sarkasmoz eta ironiaz.

Hiztegiekin gertatzen den bezala, liburua kontsultatzeko erabil daiteke, zalantzarik gabe. Irakurleak sormen handiko hiztegi berezi batekin eginen du topo, Linazasoroaren hiztegia baita, egileak asmatutako hainbat adibide bere baitan dakarrena. Erabilera pedagogikoa eman diezaiokegu lanari, jakina, betiere kontuan hartuta egilearen proposamen partikularra dela, eta termino literario bakoitzarentzat beste hamaika adibide ematen ahal direla. Bestalde, irakurraldia jarraian ere izan daitekeela agertu gura dugu, horretarako baita gomendagarria. Zenbaitetan gozagarria ere izatera iristen ahal da irakurketa-modu hori.

Asier Barandiaran